

ESK Politika

BATZ Group-en erantzukizun sozial korporatiboa integrala da eta taldearen egituran dago integratuta, kooperatiba-izaera duen erakundea da eta. Ziur gaude kudeaketa jasangarri baten bitartez aberastasuna sortu eta gure inguruaren garapena bultzatzen lagundu dezakegula, aldi berean ingurumena zainduz.

Erantzukizun sozial korporatiboaren politika **BATZ Group osoan bete beharrekoa da**, maila GLOBALEAN. BATZ taldeko pertsona guztiei eragiten die politika horrek; BATZ, S. Coop.en Kontrolpeko Sozietateei; eta, ahal den neurrian, Hornitzaile, Bazkide eta Bezeroei.

BATZeko erantzukizun sozial korporatiboaren **oinarriak bost ardatz dira**:

Gobernu korporatibo etikoa

BATZ Group-en jarduera eta kudeaketa etekin hutsa lortzera baino, gure inguruan aberastasuna sortzera dago zuzenduta. Eta helburu horiek lortzera begira, bezeroak, hornitzaileak eta administrarritza inplikatzan ditugu.

Pertsonen garapena

BATZ pertsonak osatzen dute. Pertsonak arduratzen gara. Horregatik, gure kulturaren baitan dagoen konpromiso utziezin bat den heinean, segurtasuna, osasuna eta pertsonen garapena bultzatzen dugu. Hori dela eta, enpresako helburu eta beharrak BATZ Group osatzen duten pertsona guztien behar eta helburuekin bat egiten dute.

Gizartean integrazioa

Gure jarduera aurrera eramaten dugun edozein herrialdetan, gure ingurunearen etengabeko garapena bilatzen dugu; baita herritar, bezero, hornitzaile, langile eta bestelako stakeholder-en ongizatea ere.

Hornitzaileen garapena

BATZek daukan 270 hornitzaile baino gehiagorekin elkarlanean dihardu, jarduera arduratsuak bultzatuz, jasangarritasun estandarrak hobetuz eta produktuaren bizitza zikloaren fase ezberdinetan hornikuntza kate guztiaren errendimendua optimizatuz.

Ingurumen erantzukizuna

BATZ Group-ek bere jarduerak ingurumenean eduki dezakeen inpaktua gutxitzeko konpromisoa dauka, ingurugiroa mantentzearen beharra argi dauka eta.

Erantzukizun sozial korporatiboaren politika hau BATZ Group-en Antolaketa eta Kudeaketa Ereduaren (Compliance Program) baitan dago, eta Hornitzaile, Bazkide eta Bezeroei ezartzen zaie.

Erantzukizun sozial korporatiboaren politika barne mailan komunikatzeaz gain, interesa duen ororentzat eskuragarri dago. Era berean, eta arlo honi dagokionez, hartutako konpromisoak bereziki gure bezero eta hornitzaileei jakinarazi nahi dizkiegu.



Ana Camacho | CEO BATZ Group

Apirila 2017



Ander Bilbao | Lehendakaria BATZ S. Coop